

Euskera agerkariak Euskaltzaindiaren webgunean atari berria

SAGARNA, Andoni

Euskaltzain osoa

MARITXALAR, Aitor

Infomatika aholkularia

Euskera agerkaria Euskaltzaindiaren aldizkari ofiziala da. Hiru aldi izan ditu historian zehar:

- Lehen aroa (1919-1979). Euskaltzaindia 1919an sortu zen eta *Euskera* 1920an. Aldi horretan aldizkakotasun aldakorra izan zuen; batzuetan hilabetekari izan zen, beste batzuetan lau hilabete argitaratu zen, sei hilabete behin ere bai, inoiz urtean zenbaki bakarra kaleratu zen. Gerrak eragindako etenaldiaren ondoren, 1956tik aurrera hiru hilabete behin argitaratu zen. Lehen epe horretan agerkariak bi atal izan zituen, bata bilkuren berri ematen zuena eta bestea ikertzaileek egiten zituzten ekarpenei eskainia. Hor argitaratu ziren, besteak beste, Azkueren *Morfologia* eta *Gipuzkera Osotua*, Altuberen *Erderismos* eta *La vida del euskera* eta garai hartako beste euskalari askoren lanak, hizkuntzalaritzaren hainbat arlotakoak.
- Bigarren aroa (1980-2008). Aldi honetako edukiak garrantzi handikoak izan ziren euskara batua taxutu zuen araugintzaren ikuspegitik, eta, aurreko aldi bezalaxe, euskarari buruzko hainbat lan argitaratzeko aukerako plataforma izan zen *Euskera*. Hala ere, ikerketa-lanek pisua galdu zuten arauen mesedetan. Formatu aldetik aurreko aldikoaren antzekoa izan zen. 1996an, aurreko garaietako ale asko agortuta zeudela eta paperezko hainbeste liburukitan informazioa aurkitzea zaila gertatzen zela ikusirik,

Euskaltzaindiak *Aurten bai* fundazioarekin hitzarmen bat sinatu zuen, aldizkari osoa informatizatu eta aurkibideak antolatzeko. Edukiak eskaner bidez digitalizatu ziren irudi formatuan eta CD-ROM diskoetan ipini ziren. 1997ko Durangoko Azokan aurkeztu zen 1920-1978 urteen bitartean agerturiko zenbakien diskoa, Bergarako kongresua bitartekoa. 2000. urtearen inguruan Euskaltzaindiak ahalegin handia egin zuen bere jarduerak informatizatzeko, herri-aginteen laguntzarekin, eta Euskaltzaindiaren informatika eta telekomunikazio zerbitzua sortu zen. Orduan sareratu zen webgunea, batez ere erakundeari buruzko informazioz hornitua. 2007an egin ziren XV. Barne Jardunaldietan aurkeztu zen "Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta Euskaltzaindiaren edukiak" txostenean egiturazko batzorde berri bat sortzea proposatzen zen, Informazio eta Komunikazioaren teknologiak (IKT batzordea), eta *Euskera* agerkariak esaten zen ordura arte irudizko PDFetan zeuden edukiak eta datu-base batean zeuden haiei buruzko aurkibideak webgunean jartzea nahiko lan erraza izan zitekeela. Urte hartan bertan *Euskera* agerkariko informazioa eskuratzea errazten zuen programa informatikoa aurkeztu zen Osoko bilkura batean. Gaiak, autoreak eta gako-hitzak bilatzeko aukera ematen zuen programa berriak.

- Hirugarren aroa (2008-...). 2008an erabaki zen handik aurrera *Euskeraren* hiru zenbaki aterako zirela urtero, horietatik lehena eta hirugarrena izango zirela Euskaltzaindiaren lana eta bitzta akademikoa bilduko zituztenak; bigarrenak, aldiz, ikerketa-lanak eta bestelakoak jasoko zituela. Berrikuntza hori era bereko argitalpen zientifiko akademikoen irizpideekin bat etortzeko asmoarekin egin zen. Horretarako, aldizkariaren egitura, barne-sailkatzea, atalkatzea, indexazioa, etab. birmoldatu ziren, bai eta aldizkariaren ebaluazioa egiteko arauak ipini ere. Azala eta barrua aldatu ziren. Nazioartean hedadura handiagoa eta errazagoa lor zezan, handik aurrera lau hizkuntzatan idatziko zela erabaki zen: ordura arte bezala euskaraz, espainieraz eta frantsesez gainera, baita ingelesez ere. Gutxienez artikuluko zientifiko guztien laburpenak lau hizkuntzotan eskaintzea ere erabaki zen. *Latindex* irizpideak jada betetzen ziren, eta, ondorioz, agerkaria indexazio bidean jarri zen. Horretan sakonduz, *Euskera* agerkariaren Idazketa batzordeak agerkariaren kalitate adierazleak hobetzea izan du helburu. Ahalegin horretan, kalitate-agentziek

agerkariak atari propioa eta erabilgarria izatearen premia azpimarratu dute. Betekizun horri ere erantzuten dio atari berriak.

Hurrengo pasarteetan ataria berria nola egituratu den eta, halaber, bere ezaugarriak zeintzuk diren azaltzen ditugu.

Hartara, 2019ko urtarrilean IKT batzordeak *Euskera* agerkariaren hemerrotekako bilaketak errazago eta modu eraginkorragoan egiteko lanak abian jartzea erabaki zuen. Une horretan faksimilean zeuden 22 tomoak OCR bidez tratatzea eta bilatzaile berri bat garatzea komeni zela ikusi zen. Lan horiek Elkarmedia enpresari enkargatu zitzaizkion. Egitasmo horri honako helburu hauek jarri zitzaizkion:

- 1) Lehengo artikulubilatzailea hobetzea,
- 2) zenbaki zaharrak, argitalpen-katalogoan ez zeudenak, osatu eta jasotzea,
- 3) indexatzailea hobetzea, eta
- 4) webgunean ikusgarritasuna hobetzea.

Beharrezkoa ikusten zen horretarako artikulua zatitzea eta berriro katalogatzea. Interfazea berritzea ere onartu zen. Hori guztia 2020rako, *Euskerak* ehun urte beteکو zituenerako prest edukitzea pentsatu zen. Bertsio berriaren prototipoa prest zegoen 2019ko abenduan.

***Euskera* agerkari elektronikoen berritze prozesua**

Agerkariaren berritze prozesua martxan jarri zenean, IKT batzordeak finkatutako lau helburuak izan ziren tresna berrituaren diseinurako gidalerro nagusiak.

Lehen azterketa sakon baten ostean, bigarren mailako helburu gehigarriak finkatu ziren, agerkariaren berritzea aberasteko asmoz:

1. Agerkariaren izaera bikoitza islatzea: *Euskera* agerkariak duen funtzio bikoitza, hau da, ikerketa aldizkaria eta bizitza akademikoaren aldizkaria, errespetatzea eta argi markatzea.
2. Bilatzaile aurreratu baten garapena: testu librean bilatu ahal izateaz gain, emaitzak zenbait ezaugarriaren arabera iragazi ahal izatea (artikulu-mota, saila, urtea, liburukia, pertsonak...).

3. Datuak Azkue Biblioteka eta Artxiboaren (ABA) datu-basetik erauziko ziren: ABAn *Euskera* agerkariaren artikulua guztiak katalogatuta eta deskribatuta daude. Datutegi hori izango zen tresna berriaren oinarri.
4. Zenbaki guztien aurkibidea eskaintzea.
5. Itxura moderno eta erakargarria ematea: agerkariaren estetika lerroa errespetatuz, modernotasun itxura transmititu, egungo ikerketa aldizkariaren estandarrak jarraituz.
6. Aldizkariaren proiektio internazionala hobetzea: sareko tresnan laburpenak (sinopsiak) lau hizkuntzetan irakurtzeko aukera.
7. Aldizkari osoa deskargagarri jartzea: hiru aroetan argitaratutako artikulua guztiak PDF formatuan deskargatzeko aukera egotea. Funtzionalitate gehigarri bezala, zenbaki osoak PDF formatuan deskargatzeko aukera ere emango zen. Horrela, *Euskera* agerkaria oso-osorik edonorentzat kontsultagai egongo da.
8. Bizitza akademikoaren zenbakietan dokumentuak topatzeko erraztasunak ematea: *Euskeran* argitaratutako bizitza akademikoari buruzko dokumentuak, historikoak zein egun argitaratzen direnak, garrantzi handikoak dira, izaera normatiboagatik, garrantzi historikoagatik... Agiri hauek modu azkar eta ordenatuan aurkitu ahal izatea zen helburua.
9. Ekarpinak bidaltzeko prozesua erraztea: horretarako formulario berezitu bat jarriko zen.
10. Idazketa arauen eguneraketa: aipatu ezaugarri berriekin bat etortzeko, idazketa arauen eguneraketa egingo zen.

Konplexutasun eta anbizio handiko proiektua zen. Finkatutako helburu guztiak bete nahi izan ziren, eta, ustez, baita betetzea lortu ere. Jarraian, proiektua aurrera eramateko lanen deskribapen laburra egingo da.

Lehen fasean, *Euskera* agerkariaren lehen aroko (1919-1979) aldizkari guztien digitalizatzeko lanak egin ziren. Nahiz eta zenbaki hauek lehendik ere digitalizatuta zeuden, egungo estandarrak betetzen dituen digitalizazioa egin zen: irudiak kalitate altuan, irudien garbiketa prozesua, OCR prozesua artikulua guztietan...

Bigarren fasea datutegia osatzea izan zen. Helburuetan aipatu bezala, ezinbestekotzat hartu zen ABAREN datu-base bibliografikoa oinarri bezala hartzea. Horretarako, ABAREN oinarrian dagoen Absys sistema baliatuz, MARC estandarrean esportazio bat sortu zen, eta esportazio hori izan zen sareko bertsio berrituaren oinarritzko datutegiaren oinarri. Arazo bat zegoen, ordea: ABAN artikuluen katalogazioa egiten da, eta jatorrizko datutegia ikuspegi bibliografikoarekin/artxibistikoarekin osatuta zegoen. Honek bi oztopo zekartzan nahi genuen emaitza lortzeko orduan: lehenik, ez zegoen zenbaki osoen informaziorik (ABAKO datu-basea artikuluen da), eta bigarrenik, katalogazioa artxibistikoa zen, eta zenbait eremu eta katalogazio-item ez ziren zuzenean sareko bertsiorako erabilgarri.

Aurreko fasean aipatu arazoei aurre egitea izan zen hirugarren fasean egiteko nagusia. ABATIK lortutako MARC esportazioa oinarri hartuta, lanketa berezitu bat egin zen:

1. Zenbaki osoen erregistroa osatu: modu erdi-automatikoan egin zen, ABATIK zetorren informazioa erabilita.
2. Artikuluak eskuz orraztu: aipatu bezala, datu-base artxibistikoaren ikuspegi ez zetorren beti bat eskaintzen zenarekin. Adibide esanguratsuak ziren, adibidez, zenbaki batean baino gehiagotan zatika argitaratutako artikulua. ABAN, artikulua horiek erregistro bakarra dute (eta horrela behar du), baina sarean jartzeko, agerkariaren zenbaki bakoitzean zegokion artikuluen zatia eskaini behar genuen. Irizpide desberdintasun hauek konpontzeko, tresna berezi bat sortu zen, eta emaitza bezala sortutako erregistro guztien eskuzko gainbegiratzea egin zen.
3. Zenbakien aurkibideak osorik eskuz orraztu.
4. Bilatzailean iragazki bezala erabiliko ziren eremuak eskuz gainbegiratu.
5. Datu-basea osatu: aurreko bi lanketetan oinarri hartuta, aldizkaria sarean jartzeko datu-base berri bat osatu zen.

Laugarren eginkizuna edo fasea artikuluen eta zenbaki osoen PDF dokumentuak sortzea izan zen. Digitalizazio prozesuaren irteera bezala, zenbaki osoen PDFak gelditu ziren gure eskura. Zenbaki hauek artikuluka zatitzeko prozesu bat jarri zen martxan. Prozesu erdi-automatikoa izan bazen ere, ABAKO datu-basea oinarri hartuta, eskuzko gainbegiratze sakona egin behar izan zen, zatiketa fidela izan zedin.

Sarerako tresnaren diseinu estetiko eta funtzionala izan zen hurrengo urratsa.

Helburuetan finkatu bezala, diseinu moderno eta erakargarria nahi zen, betiere agerkariaren izaera bikoitza mantenduz, ikerketaren parte eta bizitza akademi-koarena. Hori gauzatzeko, honako erabakiak hartu ziren:

1. Sarrera-orri edo *home* berri bat garatu: bisualki erakargarria, eskaintzen diren atal guztietara atzipen azkar eta garbia eskainiz.
2. Ikerketa zenbakien atal berezitua sortu.
3. Bizitza akademikoaren atal berezitua sortu. Bereziki landu zen atal hau. Hemerotekaren ikuspegi klasikotik haratago joan nahi izan zen, eta, Osoko bilkuretako agiri guztiak kontsultatu ahal izateko, urtekako eta agiriaren gaiaren araberrako nabigazioa eskaini zen.
4. Hemerotekea osoa kontsultatzeko atal berezia sortu. Hiru aroak bereizi egin dira, eta hiru aroetako zenbaki guztiak kontsultagai jarri.
5. Ekarpinak egiterako orduan informazio guztia eskuragarri jarri. Hiru atal eskaintzen dira: "Zure ekarpena bidali", ekarpen berriak bidali ahal izateko, eta "Idazketa arauak" eta "Jarraitze etikoak" atalak, bete beharreko ezaugarrien berri ematen dutenak.

Azken fasea bilatzailearen garapena izan zen. Testu libreko bilatzailea nahi zen, baina *Euskera* agerkariaren bolumena eta konplexutasuna kontuan hartuta, lehen prototipoetan jada argi gelditu zen testu libreko bilaketa soila ez zela nahikoa. Irtenbide gisa, emaitzen iragazketa sistema bat jarri zen martxan. Testu librean bilaketa egin ostean, lortutako emaitzak zenbait ezaugarriaren arabera iragazteko aukera dago: zer dokumentu-mota den (araua, adierazpena, gutuna, bilera-akta...), zein liburukitan argitaratu den, Euskaltzaindiko zein saili dagokion (lantaldea, batzordea...), pertsona-izenen araberrakoa (edozein roletan: egilearen izena, aipamena...), urtea, jardunaldiren bateko partaide edo entitatearen araberrakoa (edozein roletan: antolatzailea, sustatzailea...).

Maila teknikoagoan, bilatzaileak *Solr* izeneko teknologia erabiltzen du. Testu libreko indizea osatzerako orduan, informazio guztia hartzen da kontuan, informazio organikoa (metainformazioa) izan zein dokumentuaren testua bera. Indizearen barruan, ordea, informazio guztiari ez zaio balio bera ematen. Asko sinplifikatuz, izenburuari, egileari eta datari, adibidez, pisu handiagoa ematen zaie, baina artiku-

luaren testu osoari, nahiz eta osorik egongo den bilaketa motorrean, pisu txikiagoa ematen zaio. Hau da, garrantzi handiagoa ematen zaio artikuluaeren metainformazioari testu osoari baino. Horrela, bilaketaren garrantziaren araberrako emaitzak eskaini ahal dira, hau da, bilatu den termino(ar)ekin erlazio handiena duten emaitzak gorago agertuko dira beti.

Hau izan da *Euskera* agerkari berritua sareratzeko prozesua. Azaldutako urratsak osatu eta gero, esan dezakegu, ez direla bakarrik IKT batzordeak finkatutako helburuak bete, finkatutako helburu gehigarri guztiak ere bete baitira tresna eguneratu honetan.

Euskera agerkari digital berritua helbide honetan ikus dezakezue: <https://www.euskaltzaindia.eus/euskera>.